



INGURUMEN-IKUSKAPENENKO JARDUEREN MEMORIA URTEA: 2018

Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza
Administrazio-unitatea: Ingurumen-ikuskapena

Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Proiektuen zerrenda	2
2.1. Proiektua: 2018 IPPC segimendu-ikuskapena	2
2.2.- Proiektua: 2018 IPPC ez diren jardueren ikuskapena	7
2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena	8
2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna	9
2.5.- Proiektua: Hondakinen lekualdaketa	10
2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan	10
2.7.- Proiektua: Industriaguneen segimendua	11
2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa	11
2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa	12
3. Emaitzak	15
4. Ondorioak	16



1. Sarrera

Memoria honek azaltzen ditu Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzako Ingurumen Ikuskaritza Zerbitzuak 2018ko ekitaldirako zehaztutako ikuskaritza-programari lotuta egindako jarduketak.

2. Proiektuen zerrenda

Jarraian jasotzen dira 2018ko ekitaldian gauzatutako ikuskapen-proiektuen zerrenda, horietako bakoitzaren jarduerak eta emaitzak, eta emaitza horiek aztertzetik ateratako ondorio nagusiak.

2.1. Proiektua: 2018 IPPC segimendu-ikuskapena

Erreferentzia: 2018-01

2.1.1. Jarduketak

342 ikuskapen egin dira, eta horietatik 134 enpresetan egin dira; hau da, aurrez aurrekoak izan dira, eta 208 dokumentu bidezkoak izan dira, ingurumen-zaintzarako planak eta ingurumen-organoetatik errekerimenduei emandako erantzunak egiaztatze aldera. Aipatutako aurrez aurreko ikuskapenei dagokienez, horietako 13 programatu gabeko bisitak izan ziren.

Programazioaren barruan dauden enpresei dagokienez, horietako sei jarduera aldi baterako edo behin betiko uzteko fasean daude; lauk IPPC izateari utzi diote, eta bat enplegu-erregulazioko espedientean dago.

Ikuskapenari zegozkion aktak egin dira, eta horiekin lotutako txostenak bidali zaizkie enpresei, baita, beharrezkoa zen kasuetan, errekerimenduak ere.

Era berean, Sailaren webgunean argitaratu dira aurrez aurre egindako programatutako ikuskapenei dagozkien txostenak.



2.1.2.- Ondorioak

Ondorio nagusia da programazioaren % 100 bete dela, eta programatutako ikuskapenak aurreikusitako enpresa guztien ingurumen-esparruan duten arriskuaren arabera egin direla, aplikatu beharreko araudiak ezartzen duenaren harira. Halaber, programatu gabeko 13 ikuskapen egin dira.


Programatutako ikuskapenak egin ondoren, ikusi da betetze-maila hobetu dela; izan ere, betetze-maila altua edo ertain-altua duten enpresen kopurua areagotu da, eta 100 enpresak lortu dute maila hori. 13 enpresak dute betetze-maila ertaina; 8 enpresak, betetze-maila ertain-baxua, eta bat berak ere ez dauka betetze-maila baxua.

Proiektu honi dagokionez, gogorarazi behar da IPPC instalazioen ikuskapena kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuen araudian erregulatzen dela. Araudi horretan, era berean, ikuskapen-bisiten aldizkakotasuna ere ezartzen da, jarduera bakoitzarekin loturiko ingurumen-arriskuaren arabera. Ondorioz, proiektu hau urtero jaso behar da dagokion programan.

Jarraian, 1. taulan eta 1. irudian, proiektuaren datu orokorrak adierazten dira. Hain zuzen ere, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren ingurumen-baimen integratuetako baldintzak betetzeari dagozkion ondorioak adierazten dira.

ENPRESAK, GUZTIRA	EZ-BETETZERIK GABE	EZ-BETETZEKIN
121	38	83

1. taula. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten instalazioen kopurua



1. irudia. Ez-betetzeak dituzten eta ez dituzten ikuskatutako enpresen banaketa




2. taulan eta 2. irudian, antzeman diren ez-betetzeen kopurua agertzen da, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren, zehaztutako ez-betetzearen larritasunaren arabera.

EZ-BETETZEAK, GUZTIRA	Garrantzi gutxiko ez-betetzeak	Neurrizko ez-betetzeak	Ez-betetze esanguratsuak	Ez-betetze larriak
215	194	20	1	0

2. taula. Ez-betetzeen kopurua, larritasunaren arabera sailkatuta

MOTA BAKOITZEKO EZ-BETETZEEN KOP.




2. irudia. Ez-betetzeen banaketa, larritasunaren arabera

ARRISKU-INDIZEA (AI)

3. taulan eta 3. irudian, enpresen kopurua adierazten da, arrisku motaren arabera: gutxieneko arrisku-indizea AI=1 da, eta, gehienekoa, AI=5.

GUZTIRA	AI 1	AI 2	AI 3	AI 4	AI 5
121	10	40	50	20	1

3. taula. Enpresen kopurua, arrisku motaren arabera, egin diren programatutako ikuskapenen ondoren




3. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku motaren arabera.

ARRISKU-KATEGORIA (AK)

4. taulan eta 4. irudian, enpresen kopurua adierazten da, arrisku-kategoriaren arabera. Aipatu beharra dago ikuskapen-aldizkakotasuna egindako azken ikuskapenaren osteko arriskuaren arabera ezartzen dela: AK=1, urtean behingo aldizkakotasuna; AK=2, bi urtean behingo aldizkakotasuna; eta AK=3, hiru urtean behingo aldizkakotasuna.

GUZTIRA	AK 1	AK 2	AK 3
121	21	48	52

4. taula. Enpresen kopurua, arrisku-kategoriaren arabera



4. irudia. Instalazioen banaketa, arrisku-kategoriaren arabera




BETETZE-MAILA

5. taulan eta 5. irudian, ikuskatutako ikuskapenen betetze-maila adierazten da.

GUZTIRA	ALTUA	ERTAIN-ALTUA	ERTAINA	ERTAIN-BAXUA	BAXUA
121	68	32	13	7	1

5. taula. Enpresen kopurua, betetze-mailaren arabera



5. irudia. Instalazioen banaketa, betetze-mailaren arabera



2.2.- Proiektua: 2018 IPPC ez diren jardueren ikuskapena

Erreferentzia: 2018-02

2.2.1.- Jarduketak

IPPC ez diren jarduerak hala Ikuskapen Zerbitzuko langileek nola kontratatutako Ingurumen Lankidetzarako Erakundeek (ILE) ikuskatu dituzte, ingurumen-organoak emandako oharpenen arabera. 2018ko ekitaldian 111 ikuskapen egin dira.

Era berean, aplikatu behar den legeriarekiko desbiderapenak dituzten enpresei dagokien errekerimendua bidali zaie.


Halaber, aurreko urtean egindako ikuskapenen segimendua egin da, enpresen betetze-maila kontrolatu eta gainbegiratzeko xedearekin.

2.2.2.- Ondorioak

Apartatu honen oinarritzko premisa da Sektore Publikoaren Kontratuen Lege berria indarrean jarri izana. Horren ondorioz, 2018an, administrazio publikoekin egiten ziren kontratuak egokitu behar izan ziren, eskumena zuen sailak ezarritako gidalerroak oinarri hartuta. Horrek atzerapena eragin zuen Ingurumen Lankidetzarako Erakundearen kontratazioan –apartatu hau betetzeko xedez–, eta, ondorioz, jarduera hasieran espero zen epea baino beranduago hasi zen.

Azaldutakoa kontuan izanik, ez da bete 2018rako programatuta zeuden 159 enpresak ikuskatzeko helburua; 111 ikuskapen egin ziren.

Ikuskapenen emaitzak aztertuta, nabarmendu daiteke bisitatu diren instalazioen % 45en betetze-maila altua/ertain-altua dela; instalazioen % 31ren betetze-maila ertaina dela, eta % 24ren betetze-maila ertain-baxua/baxua dela. (Ikus 6. irudia)

**BETETZE-MAILA****6. irudia. Betetze-mailaren ebaluazioa****2.3.- Proiektua: ILEen ikuskapena**

Erreferentzia: 2018-03

2.3.1.- Jarduketak

Aurreko urteetako ikuskapenetan, kontrolatu egin genituen EAEko atmosferaren esparruan jarduten duten Ingurumen Lankidetzarako Erakundeak, eta, aurtan, horien ikuskapenak egiten jarraitu dugu. Guztira, lau ikuskapen egin ditugu.

Era berean, ILEek ikuskatutako kutsatzaileak kontrolatzen laguntzeko dokumentazioa prestatzen jarraitu dugu.

2.3.2.- Ondorioak

Bete egin da lau ikuskapen egitearen helburua. Azpimarratu beharra dago ikuskapenen emaitzak onak izan direla; izan ere, ILEei jakinarazi zaie administrazioak beraien jarduera gainbegiratzen duela, eta egiaztatu da araudia betetzen dela, fokuen neurketari dagokionez. Aipatu beharra dago soilik desbiderapen bat antzeman dela gauzatutako ikuskapenetan.



2.4.- Proiektua: Ingurumen-erantzukizuna

Erreferentzia: 2018-04

2.4.1.- Jarduketak

2017ko urriaren 30ean, APM/1040/2017 Agindua argitaratu zen, urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunaren urriaren 23ko 26/2007 Legearen III. eranskinean jasotako jardueretan –ekainaren 22ko ARM/1783/2011 Aginduaren bidez 1. eta 2. lehentasun-mailakotzat sailkatuak– nahitaezko finantza-bermea eratzea noiztik eska daitekeen ezartzen duena eta aipatutako agindu horren eranskina aldatzen duena.

Aginduan jasotzen den bezala, 1. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak aurrera eraman nahi dituzten jardueri datzekien ingurumen-erantzukizunari aurre egiteko finantza-bermea eduki behar dute, urtebeteko epean APM/1040/2017 Agindua indarrean sartzen denetik, hots, 2018ko urriaren 31tik. Bestalde, 2. lehentasun-mailarekin sailkatutako jarduerak finantza-berme hori eduki beharko dute bi urteko epean; hau da, 2019ko urriaren 31rako.

2018ko ekitaldian zehar, finantza-bermea jarri behar duten operadoreei beharrezko informazioa eta tresnak eman zaizkie, 26/2007 Legetik eta 2017ko urriaren 23ko APM/1040/2017 Agindutik eratorritako betebeharra bete dezaten. 2018. urteko azken hiruhilekoan zehar, 1. lehentasun-mailako enpresek eta 2. lehentasun-mailako enpresa batzuek prestatutako erantzukizunpeko adierazpenak jaso dira. Hori horrela, Ingurumen Sailburuordetzak hemen azaldutakoari dagokion izapide telematikoa gaitu du.

2.4.2.- Ondorioak

Programatutakoa bete da, finantza-bermea jarri behar duten operadoreei beharrezko informazioa eta tresnak eman zaizkie eta.

Jarraian, 6. eta 7. tauletan, erantzukizunpeko adierazpenaren 1. motako eta 2. motako operadoreek egin beharreko izapideari buruzko datuak aurkezten dira (2018ko abenduaren 31ra bitartekoak).

1. lehentasun-mailako enpresen egoera (Earen nahitaezko data: 2018/10/31)			
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Guztizkoak
IPPC	8	3	11
IPPC eta SEVESO	21	2	23
SEVESO	19	5	24
GUZTIRA	48	10	58

6. taula. 1. lehentasun-mailako operadoreekin lotutako datuak.



2. lehentasun-mailako enpresen egoera (Earen nahitaezko data: 2019/10/31)			
	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dutenak	Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ez dutenak	Guztizkoak
IPPC	4	80	84

7. taula. 2. lehentasun-mailako operadoreekin lotutako datuak.

2.5.- Proiektua: Hondakinen lekualdaketa

Erreferentzia: 2018-05

2.5.1.- Jarduketak

2018ko ekitaldian, EAEko zenbait operadorek egindako hondakin-garraioen 10 ikuskapen espezifiko egin dira, 2 ikuskapen Bilboko portuan eta 1, Pasaiako portuan –iragaitzazko hondakinen lekualdaketa– . Halaber, hondakinak mugaz gaindi eroaten dituzten operadoreen zerrenda eguneratu da; 112 instalazioen informazioa bildu da.

2018. ekitaldian, indarreko legeditik eratorritako betekizunak mugaz gaindiko hondakin-garraiolariei jakinarazten jarraitu dugu.

2.5.2.- Ondorioak

Programazioaren % 100 bete da; izan ere, operadoreei nahiz iragaitzazko hondakinei dagokienez programatutako ikuskapen guztiak egin dira.

2.6.- Proiektua: Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemak (IENS) kontrolatzea, IPPC instalazioetan

Erreferentzia: 2018-06

2.6.1.- Jarduketak

2018ko ekitaldian zehar, egin diren jarduketan artean, inbentario bat egiteaz gain, IPPC diren 6 instalaziotan, Igorpenak Etengabeen Neurtzeko Sistemetako baldintza jakin batzuk egiaztatu dira, zehatz-mehatz.



2.6.2.- Ondorioak

Bete egin da aurkeztutako programazioa. Bestalde, beharrezkotzat jotzen da hasi diren jarduketekin jarraitzea.

2.7.- Proiektua: Industriaguneen segimendua

Erreferentzia: 2018-07

2.7.1.- Jarduketak

EAEko industrialdeetan kokatutako enpresek indarreko ingurumen-legedia zein mailatan betetzen duten zehazteko, eta ingurunean duten ingurumen-eragina neurtzeko, 2 zaintza-jarduketa egin dira industrialdeetan, 2 enpresari buruzko informazioa bildu da eta informazio hori 2019ko ekitaldiko ikuskaritza-programazioan sartuko da.

2.7.2.- Ondorioak

Identifikatutako enpresei buruzko informazioa IPPC ez diren ikuskapen-proiektura lekualdatu da.

2.8.- Proiektua: Jarduera bertan behera utzi osteko hondakin arriskutsuen eta materialen kudeaketa

Erreferentzia: 2018-08

2.8.1.- Jarduketak

2 enpresa bisitatu dira; horietako bat ingurumen-arrisku ertaineko enpresa gisa sailkatu da, eta bestea, ingurumen-arrisku baxuko enpresa gisa. Era berean, errekerimendu 1 igorri da, eta ez da egin hondakinak kontrolatzeko eta kudeatzeko ekintza subsidiariorik.

2.8.2.- Ondorioak

Oro har, ezarritako helburuak bete dira; izan ere, hondakinak identifikatu, ikuskatu eta arriskuaren arabera sailkatu dira, eta eskatu da hondakinak baztertzeko eta jarduketak hasteko, jarduera aldi baterako edo behin betiko eten dezaketen edo jarduera eten duten lurzoruetan.



2.9.- Proiektua: Abisuen eta programatu gabeko bisiten kudeaketa

Erreferentzia: 2018-09

2.9.1.- Jarduketak


EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuna eman zaio urteko 365 egunetan, 24 orduz.

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra 490 abisu kudeatu dira.

Honela banatzen dira abisuak, lurralde historikoaren arabera:

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
OHARTARAZPEN KOP.	65	332	93

8. taula. Abisu kopurua, lurraldearen arabera.




7. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen arabera.

Eragindako ingurunearen araberako banaketa 9. taulan eta 9. irudian adierazten da.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
AIREA	28	195	41
NATURA-INGURUNEA	6	47	4
LURZORUA	19	52	38
URA	12	38	10

9. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera




8. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta eragindako ingurunearen arabera

Ingurumen-efektuen arabeko banaketa 10. taulan eta 9. irudian adierazten da.

	Errepideko istripua	Airera eginiko igorpenak	Sutea	Usainak	Hondakin arriskutsuak	Zarata	Lurzorua	Uretarako isuria	Beste batzuk
ARABA	4	17	3	9	7	1	10	11	3
BIZKAIA	16	68	6	108	16	13	32	36	43
GIPUZKOA	0	17	5	17	21	3	16	10	4

10. taula. Abisuen kopurua, lurraldearen eta ingurumen-efektuen arabera



9. irudia. Abisuen banaketa, lurraldearen eta ingurumen-efektuen arabera



2.9.2.- Ondorioak

EAEko ingurumenean eragina izan dezaketen abisuen kudeaketari erantzuteko helburua bete da, 24 orduz.

Ohikotzat jotzen dira Araban eta Gipuzkoan egindako abisuen kopurua eta ezaugarriak. Aipatzekoa da kexa kopuru handi bat Bizkaian egin dela, eta aireari eragiten diela; zehazki, usainei eta igorpenei. Analisia egin ostean, egiaztatu da batez ere industria-jardueraren gune txiki batetik datozela. Jarduera horiek udalerrri hauetan daude banatuta: Abanto-Zierbena, Muskiz, Ortuella eta Trapagaran.

Abisu eta kexa gehiago sor ditzaketela uste den enpresei segimendu berezia egin zaienez, 2018an zehar, berriro jaitsi da kexen kopurua, lehen aipatutako udalerrri guztietan. Hain zuzen ere, hau izan da udalerrrien araberako abisuen eta 2017. urtearekin alderatuta izan den murrizketaren kopurua. Abanto-Zierbenan, 11 abisu eta % 50eko murrizketa; Muskizen, 24 abisu eta % 30eko murrizketa; Ortuellan, 33 abisu eta % 25eko murrizketa, eta Trapagaranen, 16 abisu eta % 68ko murrizketa.

IPPCren segimendu-ikuskapeneko proiektuen barruan, segimendu berezia egiten jarraituko da potentzialki abisu eta kexa gehiago sor ditzaketen enpresei.



3. Emaitzak

Proiektuak

Proiektuaren erref.	Programatutako jarduerak	Eginda (%)
2018-01	138	% 97
2018-02	159	% 70
2018-03	4	% 100
2018-04	Kualitatiboak	% 100
2018-05	9	% 100
2018-06	Kualitatiboak	% 100
2018-07	Kualitatiboak	% 50
2018-08	Kualitatiboak	% 100
2018-09	Ez da aplikatzen	Kualitatiboak

11. taula. Ikuskapen-proiektuen betetze-mailaren laburpena
(2018an egindakoak)

Proiektu eta ikuskapen guztiak

Proiektuaren erref.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.
2018-01	134	342
2018-02	111	111
2018-03	4	4
2018-04	0	0
2018-05	13	13
2018-06	0	0
2018-07	2	2
2018-08	2	2
2018-09	0	64
Guztira	266	538

12. taula. Ikuskatutako jardueren eta egindako ikuskapenen laburpena



Jarduketa guztiak

Proiektu kop.	Ikuskatutako jarduera kop.	Egindako ikuskapen kop.	Ikuskapen-bisiten kop.	Agirizko ikuskapen kop.	Zaintzako ikuskapen kop.
9	266	538	266	208	8

13. taula. 2018an zehar gauzatu diren jarduketa guztien bilketa

4. Ondorioak

2018ko Ikuskapen eta Ingurumen Kontroleko Programan ezarritako programazio ia osoa bete da.

Lehentasunezko proiektua IPPC instalazioen segimendua izan da, berriz ere, eta gainerako proiektuak ikuskapen-unitatean eskuragarri zeuden baliabideen arabera gauzatu dira.

Nabarmendu behar da proiektu honetan etengabeko hobekuntza ikusi dela, enpresen betetze-maila igo eta arrisku larrienak murriztu egin baitira, ingurumen-kudeaketa hobetzearen eta ingurumen-baimen integratuaren arau-haustek murriztu izanaren ondorioz.

Gainerako ikuskapen-proiektuek betetze-maila ona izan dute.